



ONDARROAKO UDALA

Gaia: Ondarroako Udaleko kultur-egitaraua aurrera eramateko aldi baterako denetarikoko operarioak kontratatzeko lan-poltsaren zabalpena arautuko duten deialdia eta oinarriak onartzea.

Ondarroako Udaleko Alkateak 2024ko uztailaren 11ko 2024/0906 Dekretu bidez honako ebazpena eman du:

“Lehenengoa.-Ondarroako Udaleko Kultur-egitaraua aurrera eramateko aldi baterako denetarikoko operarioak kontratatzeko lan-poltsaren zabalpena arautuko duten deialdia eta oinarriak onartzea, eranskinean jasotakoarekin bat.

Bigarrena.- Ebazpen hau Ondarroako Udaleko iragarki taulan eta www.ondarroa.eus orrialdean argitaratzea.

Hirugarrena.- Prozeduran parte hartzeko epea iragarki hau aurreko puntuan adierazitako bitartekoen bidez argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera irekitzea, izen emate eskaerak aurkezteko bost egun balioduneko epea zabalduz”.

Ondarroan, 2024ko uztailaren 11n.

Sin.: Alkatea
Urtza Alkorta Arrizabalaga





ONDARROAKO UDALA

ERANSKINA

UDALEKO KULTUR-EGITARAU AURRERA ERAMATEKO ALDI-BATERAKO DENETARIKO OPERARIOAK KONTRATATZEKO ONDARROAKO UDALEKO LAN POLTSAREN ZABALPENA ARAUTUKO DUTEN DEIALDIA ETA OINARRIAK.

Lehenengoa.—Deialdiaren xedea

Deialdiaren helburua da Ondarroako Udaleko udako kultur-egitaraua aurrera eramateko aldi baterako denetariako operarioak kontratatzeke indarrean dagoen lan-poltsa merezimendu-lehiaketa bidez zabaltzeko prozedura arautzea. Lan-poltsa hori Ondarroako Udaleko Alkatearen 2023ko abuztuaren 8ko 2023/0988 Dekretu bidez sortu zen.

Bigarrena.—Lanpostuaren baldintzak

Lanpostuaren ezaugarriak hurrengoak dira:

- Lanpostua: denetariako operarioak.
- Taldea: AP.
- Lanpostu osakina: 16
- Berariazko osagarria: 13.411,32 €.
- Eginkizunak: tarimak muntatu-desmuntatu; aulkiak ipini eta kendu; autobabes planean jasotakoak: ikuskizunak dauden eremuetan sarrera eta irteeretan egon segurtasun neurriak bermatzen, karpako kurtinak egokitu (zabaldutxo), zaintza lanak (suzirietan eta artisten materialetan); ikuskizunak amaitutakoan materiala lokaletan gorde eta horiek itxi; hesiak jarri-kendu; zintak jarri-kendu; haimak jarri-kendu; musika ekipoak muntatu-desmuntatu; zama arineko karga-deskarga lanak; garbiketako lanak; ikuskizunaren antolaketa ekar ditzaketan lanetan lagundu (izen-emateak, ilarak zaindu, ...) eta abar.

Hirugarrena.—Hautagaien betekizunak

Hautagaiak, eskaerak aurkezteko jarri den epea bukatu aurretik, ondorengo betekizunak bete beharko dituzte:

Lehiaketan parte hartzeko ezinbestekoa da:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.
- b) 16 urte edo gehiago izatea, eta adinagatik derrigorrezko jubilazio-adinera iritsi gabe egotea.
- c) Zereginak betetzeko behar besteko gaitasun funtzionala izatea.
- d) Edozein herri administrazioaren zerbitzutik diziplina-espedita bidez baztertua ez egotea edo zeregin publikoak betetzeko gaitasuna galduta ez izatea.
- e) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, herri-



ONDARROAKO UDALA

administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera; hala ere, kargu publikoan jardun edo jarduera pribatu bateraezina egiten dutenek ez dute aukera egiteko eragozpenik izango, aipatutako legezko arauetan adierazita dagoen bezala.

- f) Titulazioa: Eskola Graduatu titulua edo 1. mailako Lanbide Heziketa edo parekoa.
- g) 1. HE edo baliokidea, derrigorrezkoa.

Laugarrena.—Eskaera-orriak

Eskaerak eskaera-orri eredu ofizial eta normalizatueta egingo dira. Eskaera-orria oinarri hauen **eranskinean** jasota dator. Ereduok Ondarroako Udaleko erregistro orokorrean eskuratu daitezke edo www.ondarroa.eus helbide elektronikoan ere eskuragarri egongo dira.

Eskaera-orriekin batera hurrengoak aurkeztu beharko da:

- 1) Nortasun Agiriaren fotokopia edo, atzerriko lehiakideen kasuan, nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen dokumentua.
- 2) Eskola Graduatu titulua edo 1. mailako Lanbide Heziketa edo parekoaren fotokopia eta euskarako 1. HEren edo titulu baliokidearen fotokopia.
- 3) Alegatu diren merezimenduen egiaztariak. Egiaztari hauek eskaerak aurkezteko epearen barruan aurkeztu beharko dira. Eskaerak aurkezteko azken egunera arteko merezimenduak baloratuko dira. Ez dira kontuan hartuko hortik kanpo geratzen direnak edota, alegatu badira ere, justifikatu ez direnak.

Hautaketa-prozesurako eskabideak Ondarroako Udaletxeko erregistro orokorrean (Kanttoipe, 3, behe) aurkeztuko dira, eta Alkate-Udalburuari zuzenduta beharko dira egon. Udaleko web orrian eta iragarki taulan oinarriak argitaratu eta, hurrengo egunetik hasita, bost (5) laneguneko epe barruan aurkeztu beharko dira.

Halaber, Administrazio publikoen administrazio-prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazten diren moduak ere erabili daitezke eskariak aurkezteko.

Lehiakideek eskarian adierazi beharko dute hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik; e) letran agertzen den bateraezintasun-baldintza izan ezik, azken hori kontratua sinatzeko egunean bete beharko du, aukeratua izanez gero.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeak berekin dakar eskarian jasotako datu pertsonalak tratatzeko onespina, hau da, behin-behineko eta behin betiko emaitzak iragarki-oholetan eta web orrian argitaratzeko erabiliko diren datuak tratatzeko. Era berean, eskaera aurkezteak esan nahi du berariazko baimena eman dela beste administrazio publiko batzuek haien langile-premiak betetzeko langileen zerrendak eskatzen dituztenean norberaren datuak emateko. Ez da lehiakideen eskaria onartuko beren datuak erabiltzeko baimenik eman ezean. Datuak ikusi, aldatu, zuzendu edo ezabatzeko eskubideaz baliatu nahi izanez gero, dei egin duen organora jo beharko dute.

Bosgarrena.—Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ondarroako Alkateak onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onetsi eta argitaratuko du, Udaletxeko iragarki-oholean eta



ONDARROAKO UDALA

www.ondarroa.eus web orrian. Baztertuta utzitako hautagaiak egutegiko 5 laneguneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita, dauden akatsak zuzentzeko edota aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Epe hori bukatutakoan, Ondarroako Alkateak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi eta argitaratuko du.

Seigarrena.—Kalifikazio-Epaimahaiaren osaketa, eraketa eta jarduketa

Epaimahaian epaimahaiburu bat eta bi bokal egongo dira, horietako batek idazkari funtzioak ere beteko dituelarik. Epaimahaia osatzen dutenek espezialitatearen printzipioa beteko dute; beraz, kide guztiek deialdiko lanpostuetan eskatzen den titulazio berdina edo maila handiagoko titulazioa izango dute, eta, gutxienez, kideen erdiek hornituko den lanpostuari dagokion ezagutzarlaro bereko titulazioa izan beharko dute, eta, hala ez izatea justifikaturik egon ezean, gizonen zein emakumeen ordezkaritza, orekatua bermatuko o da.

Deialdia zuzenduko duen epaimahaiaren osaera argitara emango da onartuen eta baztertuen behin-betiko zerrendarekin batera.

Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute.

Epaimahaiaren erabakiak bertaratutakoen botoen gehiengoak hartuko ditu, eta, berdinketa egonez gero, epaimahaiburu diharduenaren botoak erabakiko du.

Oinarri hauetan ezarri ez den guztirako, Epaimahaiak ahalmen osoa du sor daitezkeen zalantzak argitu, eta deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko erabakiak hartzeko.

Zazpigarrena.—Hautatze-prozedura

Hautagaiak aukeratzeko erabiliko den prozedura merezimendu-lehiaketa izango da.

Lehiaketa Fasea: 30 puntu gehienez.

7.1. Lan esperientzia: Kontzeptu honengatik 15 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den egunean izangaiek dituzten eta behar bezala egiaztatutako merituen azterketan eta balorazioan oinarritzen da, betiere jarraian aipatzen diren irizpideak kontuan hartuta eta ez bestelakorik:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, kultur edo aisialdiarekin zerikusia duen operario plaza/lanpostu batean; lanbide talde sailkapenarekin (AP) edo E sailkapenarekin; eta funtzionario gisa zein lan-kontratudun gisa: 0,027 puntu egun bakoitzeko. Gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.
- Enpresa pribatuan egindako zerbitzuengatik, kultur edo aisialdiarekin zerikusia duen operario lanpostu batean: 0,014 puntu egun bakoitzeko. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira.

Lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Esperientzia egiaztatzeko, zerbitzuak eman diren Administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiria administrazio bakoitzak erabakitzen duen ereduari aurkeztuko da eta bertan hurrengoak agertu beharko dira: lan egindako aldiak banakatuta eta plazari lotutako lanpostuaren taldea, izena eta funtzioen laburpena.



ONDARROAKO UDALA

Enpresa pribatuen eskaintako zerbitzuak egiaztatzeko lan kontratua eta Gizarte Segurantzako lan biziak aurkeztu beharko dira.

Autonomo gisa zerbitzuak eskaini direla frogatzeko, jarduera burutu dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du interesdunak: lan-bizitza.

7.2. Ikasketak:

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatutitulu edo oinarriko lanbide-heziketako heziketa-zikloa, edo baliokidea: puntu 1

Batxilergo edo teknikari titulu edo baliokidea: puntu 1.

Ez da baloratuko deialdian parte hartzeko alegatutako titulazioa.

7.3. Euskarazko jakintza (gehienez 2 puntu):

- 2. HE edo titulu baliokidea (B2): puntu 1.

- 3. HE edo titulu baliokidea (C1): puntu 2.

7.4. Deitutako lanpostuen funtzioei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroengatik, gehienez ere 10 puntu:

- 10 ordua arteko ikastaro bakoitzeko: 1 puntu

- 10 ordu eta 50 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 2 puntu

- 50 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko: 3 puntu

Ikastaroak dagokion administrazioak edo entitateak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira. Egiaztariak formakuntza orduak zehaztu beharko ditu. Ordurik zehazten ez den kasuetan, formakuntza ez da baloratuko.

7.5. B motatako gidatzeko baimena: puntu 1.

Zortzigarrena.—Lan poltsaren onespina

Merezimenduen balorazioa amaitutakoan, Epaimahaiak lan-poltsaren zabalpenean sartzea lortu duten izangaien zerrenda jakinaraziko du.

Izangaien sailkapen-ordena lehiaketan lortutako puntuazioen batuketak emango du. Posturik onenean geratzen den izangaia, indarrean dagoen lan-poltsan azken postuan dagoen izangaiaren atzean sartuko da.

Berdinketa-kasuan, hurrenkera irizpide hauen arabera izango da:

- Azken puntuazioa lortutako puntuazio guztien batura izango da, deialdi honetako zazpigarren oinarrian ezarritako baremoaren arabera. Berdinketarik gertatuz gero, martxoaren 16ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batetara onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera ebatziko da.



ONDARROAKO UDALA

- Modu subsidiarioan, berdinketak ebazteko, zazpigarren oinarrian adierazitako merezimendu bakoitzean lortutako puntuaziorik handiena hartuko da kontuan, oinarrietan adierazitako hurrenkeraren arabera.
- Oraindik berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

Bederatzigarrena.—Errekurtsiak

Oinarri hauetan xedatu ez den guztiari dagokionez, Epaimahaiak ahalmena du sortzen diren zalantzak argitzeko eta hartu beharreko erabakiak hartzeko, hautaketa-prozesua behar bezala egite aldera.

Deialdiaren, bere oinarrien eta deialditik eta epaimahaiaren jardueratik erator daitezkeen egintza administratiboan aurka egin dezakete interesatuek, Administrazio publikoan administrazio-prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitako epe eta moduan.

Hamargarrena. – Datuen babesa

Udal honetan ematen edo sortzen diren datu eta erregistro guztiak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako jarraibide eta arauen pean egongo dira. Datu pertsonalak tratatuko dira hautaketa-prozesuan eta ondoriozko lan-poltsan parte hartzeko eskabideak kudeatzeko, interesdunak emandako baimenean eta tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoan erabileran oinarrituta, DBEoren 6.1 artikuluan a) eta e) letretan, hurrenez hurren. Izangaiek emandako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira. Fitxategi horren helburua hautaketa-prozesu hau kudeatzea izango da, bai eta prozesutik eratorritako lan-poltsak kudeatzea ere. Fitxategi horren arduraduna Ondarroako Udala da, eta haren aurrean baliatu ahal izango dira datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta transferitzeko eskubideak. Interesdunak deialdian aurreikusitako baztertzeko taula medikora egokitzen direla egiaztatzeko, fitxategi hori lege aurreikusitako baldintzetan tratatu eta laga ahal izango da. Hautatu ez diren pertsonen datuak, hautaketa-prozedura amaitu ondoren, ezabatu egingo dira.



ONDARROAKO UDALA

5. ENPRESA PRIBATUAN ANTZEKO LANETAN ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Enpresa	Hasiera data	Amaiera data	Betetako lanpostua

6. IKASTAROAK

Ikastaroa	Ikastetxea	Lorpen data	Ordu kopurua

7. GIDABAIMENA

Mota	Lortze data



ONDARROAKO UDALA

8. ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK:

	BAI	EZ
a) NAN fotokopia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
b) Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioaren fotokopia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
c) Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiaren fotokopia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
d) Lan esperientzia ziurtatzeko dokumentazioa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
e) Ikastaroen ziurtagiriak (ordu kopurua jaso behar dute)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
g) Gidabaimenaren fotokopia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

eskaera honetan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ditudala **AITORTZEN DUT**. Horrez gain, honakoa **ADIERAZTEN DUT**:

- Ez nagoela ezgaituta eginkizun publikoak betetzeko, eta ez nagoela bereiztuta diziplina-espeditate bidez Estatuko, autonomia erkidegoetako, tokiko administrazioetako edo ere menpeko enpresa zein erakundeetako zerbitzuren batetik.
- Era berean, abenduaren 5eko Datuen Babeserako 3/2018 Lege Organikoan jasotakoaren arabera, adierazten dut Ondarroako Udala nire datu pertsonalak oinarrietan jasotako helburuetarako erabiltzeko eta enplegu-eskaintzetarako beste administrazio publikoetako erakundeei datuak emateko

BAIMENTZEN DUDALA EZ DUDALA BAIMENTZEN

Ondarroan, 2024ko uztailaren(e)(a)n.

Sin.:.....

ONDARROAKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUARI